

Tolosaldea trainerua, gogo biziz ETE ligari ekiteko

Uztailaren 11n hasiko da Emakumeen Traineruen Elkartearen Liga; datorren astelehenean hasiko dira ur gaineko entrenamenduekin // 7

«Mugak ditugu, baina zortea dugu altzotarrekin eta ingurukoekin»

JOKIN ZABALA
SUKALDARIA

Altzoko Ostatuaren ardura hartu du billabonatarak // 6

Tolosako
komertzio txikia
biltzen duen
gehigarri
berezia, gaur



Sormenaren Kabia bekak epaimahaikide berriak izango ditu; Aizpea Goenaga, Nagore Legarreta eta Xabier Artola. JON MIRANDA

Bi artista eta hiru aste, Sormenaren Kabian

Alkizako Udalak abiarazitako Sormenaren Kabia bekaren hirugarren edizioa egingo dute aurten eta egonaldia hiru astetara zabaldu dute; bihartik aurrera eman ahalko da izena // 3

Ekainak
1 → 19

aurre
MATRIKULA

01 ^{3. urteko} OINARRIZKO
LANBIDE HEZIKETA

- Elektrizitatea eta Elektronika
- Elementu Metalikoen Fabrikazioa

*Prestakuntza
lanbidea
etorkiruna*

02 ERDI MAILAKO
ZIKLOAK

- Mantentze-lan Elektromekanikoa
- Mekanizazioa
- Instalazio Elektrikoak eta Automatikoak (eskaintza partziala modalitatean)

03 GOI MAILAKO
ZIKLOAK

- Animazio Soziokulturala eta Turistikoa
- Sistema Elektrotekniko eta Automatizatuak
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua

☎ 943 55 19 58

✉ idazkaritza@hernanilah.eus

📍 Karmelo Labaka 7, 20120 Hernani

HERNANILHII



www.hernanilah.eus

HERNANI
LANBIDE
HEZIKETA

GIZARTE BERRIKUNTZAKO LHII
CIFP INNOVACIÓN SOCIAL

Fiskaltzak Asuncionen aurkako salaketa artxibatu du

Erredakzioa

Gipuzkoako fiskaltzak ikerketa bat abiarazi zuen pasa den abenduan Tolosako Asuncion klinikan lanean ari diren medikuen egoera aztertzeko. Izan ere, atzerriko medikuak ari dira lanean bertan, baina ez dute Espainian homologatutako titulurik. Hori dela eta, homologatu gabeko mediku horien intrusismo delitua da ikertu duena. Informazioa jaso ondoren, fiskaltzak salaketa artxibatzea erabaki du, «ez da behar bezala justifikaturik geratu delitu baten gauzatzea», esan du.

Euskadiko Fiskaltzarekin Asuncion klinikako bi langile ohi elkartu zirenean hasi ziren eskualdeko ospitalea ikertzen. Carmen Adan Euskal Autonomia Erkidegoko fiskal nagusiak Gipuzkoakoaren esku utzi zituen txostenak, eta honek ikerketa zabaldu zuen Asuncionen aurka, intrusismo delitua aztertzeko asmoz.



Asuncion klinika. ATARIA

Berazubi estadioko bulegoen egoitza egokitu du udalak

Zazpi urtetako lanekin amaitu ondoren, kirol eremuak bestelako itxura du orain. Egoitza eraberritua, Tolosa CF-ko ordezkarienezako erreferentziazko gunea izatea nahi da.



Berazubi estadioko bulegoek egun duten itxura, kanpotik begiratuta. IMANOL GARCIA LANDA

Josu Artutxa Dorronsoro

2011n sinatu zuen, Tolosako Udalak, Tolosa CF klubarekin eta Muñoa Fundazioarekin, Berazubi estadioko eraberritze lanei ekiteko hitzarmena. Orduan, udalaren esku geratu zen eremuaren kudeaketa. 2013az geroztik, hainbat lan gauzatu dira, herriko kirol eskaintza areagotu eta instalazioak herritarren es-

kura jarri asmoz. Besteak beste, harmailak berritu, padel pistak egin, frontoia atondu eta aldagelak eraberritu dira. Orain, azken fasean, estadioko bulegoak egokitu dira, klubak bere jardunera-ko espazio egokiak izan ditzan.

Izan ere, futbolaz haratago, gaur egun hainbat kirol barnebiltzen ditu Tolosa CF-k: atletismoa, eskubaloia, txirrindularitza, mendia, gimnastika erritmikoa, pilota eta tenisa. Ondorioz, haur, gazte eta guraso asko biltzen ditu. «Herrian oso errotuta eta bertako izaerari oso lotua dagoen kluba da, gazteen artean kirol praktika sustatu eta bermatzen duen erreferentziazko kirol taldea», diote udaletik.

IA 418.000 EURO

Amaitu berri diren obrak, ares-tian aipatutako hitzarmenaren baitan kokatzen dira, hartutako konpromisoaren eta aurretik egindako lanen ildotik. Duela hila-bete batzuk, baina, atzeratu egin ziren bulegoak egokitzeko lanak, udaletik azaltzen dute-

nez, «gaur egun bizitzen ari garen testuinguruagatik eta osasun larrialdi egoeragatik».

Kontuak kontu, dagoeneko amaitu dituzte. Urkaz Eraikuntza S.L. enpresak gauzatu ditu, 417.986,42 euroko aurrekontuarekin (BEZ-a barne). Goiko pisan bulegoak berritu dira, egungo araudira egokitu eta irisgarriak izan daitezten. Beheko solairuan, berriz, egungo biltegia berritu da. Elkartearen egoitza izango den espazioa hutsik utzi da, etorkizunean klubak bere beharren arabera egokitu dezan.

ERABILERA ANITZEKO EREMUA

Udaletik adierazi dutenez, «bulegoak egokitzeko egindako lanei esker, klubak eta bertako kirolariek, «erreferentziazko egoitza eta gunea» izateaz gain, euren jardunerako «espazio eta eremu egokiagoa» izango dute aurrerantzean. «Obrei esker, klubeko kideak elkartzeko, kanpotik datozen taldeak jasotzeko, omenaldiak egiteko edota ospakizunetarako lekua izango da».

Kaleko ekintzak egiten hasiko da Gazte Topagunea, asteburuan

J. Artutxa Dorronsoro

Osasun alarmak, kalera irteteko ordutegiak malgutzen doazenez, Gazte Topagunea bere eskaintza egungo egoerara moldatuko du. Horrela, nerabeek egoera berri honetan dituzten beharrei erantzun nahi diete hezitzaileek. Hori bai, kaleko topaketa horiek segurtasunez egiten direla bermatu nahi dute.

Hori dela eta, kaleko jarduerak berreskuratzen hasiko dira, aste-buru honetatik aurrera, ezarritako segurtasun eta prebentzio neurriekin. Momentuz, gaur eta bihar *online* egiteko jarduerekin jarraituko dute. Larunbatean mendi irteera eta argazki lehia-keta egingo dituzte, eta igandean skate parkera joango dira. Asteburuko ekintzetan parte hartzeko beharrezkoa izango da izena ematea, eta ondoren jaso-ko den baimen orria gurasoen sinadurarekin bueltan bidaltzea.

Miren Agur Meabe, asteazkeneko 'online' irakurle taldean

KULTURA // Hilaren 10ean egingo da Galtzaundiren ekaineko irakurle taldearen saio digitala, 17:30ean. Yurre Ugartek dinamizatuko du, eta Miren Agur Meabe idazle lekeitiarra izango da protagonista, berak idatzitako *Hezurren erretura* nobela irakurleekin lantzeko. Sarbidea lortzeko www.galtzaundi.eus-en eman behar da izena, eta eskualdeko herritarrek izango dute lehentasuna (gehienez, 20 lagun).

Topic museorako sarrerak, abuztuak 31ra arte erabilgarri

KULTURA // Asteartean ireki zituen ateak Topic museoak. 10 urte betetzen ditu aurtan, eta urteurrena tolosarrekin ospatzeko eta herritarrei munduko kultura ezberdinak ezagutarazteko aukera eskaintzeko, itxialdia hasi aurretik, museoak ezagutzeko bina sarrera banatu zituzten herriko etxebizitza guztietara. Bada, horiek aurrez hitzordua hartuta erabili ahal izango dira, abuztuaren 31ra arte.

IRAGARKI LABURRAK

Lana

Garbiketa. Tolosako Garbiketa enpresa batek, gizonezko bat behar du garbiketala lanetan jarduteko. Ezinbesteko baldintzak: gidabaimena izatea eta esperientzia izatea. Interesa dutenek, 943 670 626 telefono zenbakira deitu behar dute.

Ostalaritza. Zerbitzaria behar da, asteburuetan jatetxe batean lan egiteko. Interesa duenak 605 72 77 30 zenbakira deitu behar du.

Zaintza. Tolosan edota Berastegin adineko pertsona bat jardunaldi

partzialean zaintzeko pertsona eskualduna behar da. Zaintzarako gutxieneko prestakuntza edota eskarmentua izatea eskatzen da. Interesa duenak, 635 707 685 zenbakira deitu behar du.

Galdutako gailua

GPS galdutako. Garmin modeloko GPS beltza galdu genuen larunbatean, Murumendi eta Santamaña tartean. Norbaitek aurkituz gero, 664 039 395 telefono zenbakira deitzea eskatzen dugu.



Koldobika Jauregi eskultorea, Inaki Irazabalbeitia Alkizako alkatea eta Edurne Ayuso kultura teknikaria, atzo Ur Maran, Sormenaren Kabia aurkezten. J. MIRANDA

Hiru astetara zabaldu dute artistentzako egonaldia

Alkizako Ur Mara museoan aurkeztu dute Sormenaren Kabia bekaren hirugarren edizioa; bi artistak egin ahal izango dute egonaldia Alkizan

Jon Miranda Alkiza

Alkizako Udalak, herriko eragileekin elkarlanean, artistek hausnartu, sortu, esperimentatu eta esperientziak partekatzeko egonaldia sortu zuen 2017an. Kultura eta arte sorkuntza hirietatik deszentralizatu eta modu horretara landa eremuko herri txikietan ere proiektu artistikoak gauzatu daitezkeela erakutsi nahi izan zuten. Aurtun hirugarren ekitaldia egingo dute.

Lehenengo bi edizioetan parte hartu duten artisten aholkuak aintzat hartuz, egonaldiak aste-bete gehiago iraungo du aurtun. Artistek denbora gehiago izango dute euren proiektuak landu ahal izateko, Inaki Irazabalbeitia alkateak nabarmendu duenez: «COVID-19ak eragindako egoera dela

eta, murrizketak egon diren honetan, Alkizako herriak kulturen aldeko apustuari eutsi dio. Aurtengo aurrekontua murriztuta ere, ez bakarrik mantendu, areagotu egin dugu artistek herrian egin ahal izango duten egonaldia».

Ahalegin hori, neurri handi batean, herriko eragileei esker egin daitekeela esan du Irazabalbeitia eta «bene-benetan» eskertu nahi izan die inplikazioa. «Lete nekazal turismoa, Inazio Urruzola txakolindegia, Alkizako ostatua eta Eko Talok egindako ekarpenik gabe, hau guztia ezinezkoa litzaiteke». Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako laguntza ere eskertu du alkateak.

Alkizako beste kultur eragile inportantea Ur Mara museo da eta aurreko edizioetan bezala aur-

ten ere Sormenaren Kabia proiektuan parte hartuko du bertako arduradun Koldobika Jauregik: «Bertako eta kanpoko artistei zabaldu nahi diegu deialdia eta nabarmendu nahi dugu arte esparru guztietako proiektuentzat dagoe la zabalik deialdia, izan antzerkia, argazkigintza edota dantza».

Jauregi beraren aholkularitza eta laguntza jasoko dute hautatutako artistek Alkizan egoten diren bitartean, eta aurtun, herritarrekiko harreman zuzena errazte aldera, herriko plazan gune bat prestatuko dute, Jauregiren esa-

netan, «alkizarrek ere sormen prozesuaren segimendua egin ahal izan dezaten». Ohi bezala, Unai Sorarrain herritarrek ikusentzunezko batean jasoko du artistek Alkizan egingo duten egonaldia, euren lana ezagutzera eman dezaten.

BI ARTISTA HIRU ASTEZ ALKIZAN

Koldobika Jauregirekin batera, aurtun, epaimahaikide berriak izango ditu Sormenaren Kabiak. Aizpea Goenaga zinema zuzendari, idazle eta aktoreak, Nagore Legarreta iaz egonaldian parte hartu zuen argazkilariak eta Xabier Artola informatikan doktore eta argazkigintzan aritzen den herritarrek osatuko dute. Besteak beste, proiektuak epaitzerakoan, originaltasuna, hautagaiak parte hartzeko azaldu duen interesa eta

Fagus Alkiza interpretazio zentroaren hiru ardatzekin proiektuak duen koherentzia hartuko dute aintzat. Antolatzaileek esan dutenez, proiektuak kontuan hartu beharko ditu landa eremuko herri txiki euskaldun baten ezaugarriak eta estimatuko dute herritarrekin jardueraren bat antolatzea.

Parte hartu nahi duten artistek euren proiektua aurkezteko aukera izango dute ekainaren 5etik uztailaren 5era. Deialdi honetan adinez nagusia den edozein sortzailek parte har dezake, «eskarmentu handikoa nahiz hasi berria izan». Artistek bakarka zein taldean aurkeztu ditzakete euren proposamenak, eta edozein diziplina artistikotakoak izan daitezke.

Alkizako Udalaren eta Fagus Alkiza interpretazio zentroaren webguneetan eskuragarri daude deialdiaren oinarriak. Bi artista izango dira hautatuak eta Sormenaren Kabiak hainbat baliabide eskainiko dizkie lanerako: espazioa, aholkularitza artistikoa, izaera bereko beste hainbat proiektu ezagutzeko erraztasuna, ostatua eta 1.000 euroko sari bana. Ondoren, hiru asteko egonaldia iraila eta urria bitartean gauzatu da eta antolakuntzak aukeratuak izan diren sortzaileekin adostuko ditu data zehatzak.

‘ALKIZAKO KABIA’ MOKADUA SORTU DUTE AURTEN

«Gastronomia zerbaít bada horixe da: etengabeko sormena, prestakuntza eta esperimentazioa». Sormenaren Kabia egitasmoa antolatzaileak erronka batekin joan zitzaizkien Alkizako Ostatuko nagusi Markos Estebanengana eta Eko Talo enpresako arduradun Julen Altzelaingana: «Ea gai zaretan mokadu edo kutixia bat sortzeko Sormenaren Kabiaren arima islatzen duena».

Alkizako Kabia da emaitza. Alze-laik aipatu duenez «Irina egiteko artoa, labean xigortua da eta ukitu berezia ematen dio taloari. Talo kurruskari bat egin nahi izan dugu kasu honetan». Estebanek, ohiko taloaren orde, tako bat osatzearen aldeko hautua egin dutela nabarmendu du. «Barruan baserriko arkumea darama, labean erreta, eta horrekin batera badaramatza, hemengo baratzetako barazkiak, tipula ozpinean ondua, martorria, soja saltsa eta lbarrako piperrak».

Hemendik aurrera, Eko Taloko eta Alkizako ostatuko eskaintzen artean, tarteka, Alkizako Kabia mokadua probatzeko aukera izango da.

Ekainaren 5etik uztailaren 5era bitarte aurkeztu ahal izango dira egonaldirako proposamenak

5.500 metro dituen ibilbidea da 'Tolosaldeko Ataria'-k gaur proposatzen duena; zatirik handiena bidegorri bidez egin ahal da; Alegia eta Ikaztegieta herriak ezagutzeko aukera ematen du

Tontokaletik San Lorentzora

Eneritz Maiz Etxarri Alegia

Tolosaldea eta Goierri lotzen dituen bidegorrian barrena egingo da Alegiatik Ikaztegiatarako ibilbidea. Alegiako tren geltokitik hasiko da, eta bertan Alegiako Gaztetxearekin egingo du topo ibiltariak. 1987. urtean okupatu zuten herriko gazteek, eta kolore biziz margotuta dago eraikina. Errepidea gurutzatu, eta Tontokalera jaitsiko da.

Alegiako herritarren bilgune da Tontokale. Mugimendu handia dago, eta ibilbideari hasiera emateko, San Juan kalea eskuinetara hartuko da. Udaletxe aurretik pasa, eta kale estuan zehar elizaren ondotik pasako da. Kale amaieran, Oria ibaiaren ertzeko paseotik egingo da bidea. Eskuinetara bidegorria izango du, eta baita baratzeak ere.

Oria ibaian dagoen presa ikus daiteke, eta atsedena hartzeko aulkiak ere badaude, baina bueltarako uztea hobe izango da. Hasi besterik ez da egin ibilbidea. Errepidea bidegorrirantz gurutzatu beharko da, baina zebra biderik ez dagoenez, arreta handiz egin beharko da.

Behin bidegorrian egonda, ez dago galtzeko arriskurik. Aldabako bidegurutzera iritsiko da. Bertan ezkerretara begiratu gero, Gorotzenea baserria dago. Gipuzkoan Bergarako beste baserri batek baino ez duen bitxikeria du: garaia edo *horreoa*. Galizian edota Asturiasen ohikoak



Alegiako zubi zaharra eta udaletxea ezagutu beharreko eraikinak dira, eta ibilbideak ematen du horretarako aukera. E.M.

dira ikustea. Oinplano errektangularra eta bi isuriko teilatua dituen eraikin osagarria da. Buruan arbelezko plaka bana dituzten sei pilaretxoren bidez dago altxatua, lurretik. XIX. mendearen bukaera aldera eraiki zuten baserriarekin batera, eta, Norteko burdinbidea zela medio bota behar izan zuten lehengo baserria ordezkatzeko eraikia izan zen.

Bidegorrian aurrera jarraituz, ezker aldean, industrigunea pasako du ibiltariak. Zelai berdeak, eta autobia ere begien bistan



Ikaztegieta zubira iristean, eliza eta udaletxea ikusi ahal izango dira. I.U.

izango ditu. Ia Ikaztegieta iristear dago, eta lehen etxeak ikusiko ditu. Eskuinetara, lau arku dituen zubia dago; azpitik Oria ibai pasatzen da, eta gainetik, tren. Ibilbideko lehen maldatxo igo behar da. Herrigunera sartzearekin batera bidegorria amaitu egiten da, eta herrigunearainoko bidea espalo bidez egingo da. Iritsi ahala, eliza eta udaletxe eraikin berria ikusiko dira. Herriko Ostaturia, berriz, ezkerretarako geratzen da.

Alegiako tren geltokian hasten da ibilbidea eta Kale Beheran bukatu

Ikaztegieta errepideak eta trenbideak erdibitzen dute. San Lorentzo izenez ezagutzen dira herriko ia kale guztiak. Zubia gurutzatu gero, plazara sartuko da. Lasaia da, eta haurrekin jolasean ibiltzeko modukoa. Parkea ere bertan dago, udaletxearen aurrean. Eta alboko eraikinean, eguzki erlojua ikus daiteke.

Etorritako bidetik egingo da Alegiarako bidea. Herrira iristeko, ordea, San Juan kaletik jaitsi beharrean, Oria ibaiaren ertzeko pasealekutik pasako da. Tartean, herriak duen puntu xarmagarrienetako bat dago, zubi zaharra. Udaletxearen atzeko aldeko arkupetik pasa, eta Larraitz auzora doan errepidea gurutzatuta Kale Beherara iritsiko da, ibilbidea bertan amaituz. Atsedena hartzeko toki paregabea dago.



Alegiako Kale Beheran bukatzen da tren geltokian hasitako ibilbidea. I.U.

Ikasturtea amaitzerako, datorrena prestatu behar

Zabalik da Harituz Tolosaldeko Bertsozale Taldeak antolatzen dituen bertso eskoletan izena emateko epea; ekainaren 19a izango da azken eguna

Irati Saizar Artola

Harituz jarri da dagoeneko hurrengo ikasturteari begira. Bertso eskolako talde eta ordutegiak antolatzen hasiak dira, eta zabalik dute izen-emate epea. Ekainaren 19a izango da apuntatzeko azken eguna. Deialdia 10 eta 16 urte bitarteko ume eta gaztetxoiei bideratu diete bereziki, baina bertsolaritzarekiko interesa duten beste adinetako ikasleak ere izena ematera gonbidatu nahi ditu Harituzek.



«Bertso eskolei nola hala eutsi diegu, baina aisialdian eragin digu gehienbat»

HARITZ MUJIKA
HARITUZEKO
KOORDINATZAILEA

I.S.A.

Eskualdeko herrietan Harituzek antolatzen dituen bertso eskolak kudeatzeaz arduratzen da, besteak beste, Haritz Mujika (Asteasu, 1995). Koronabirusa dela eta, ikasturte amaiera hankaz gora jarri zaie, baina, hala ere, prest dira hurrengo ikasturteari ekiteko.

Bertso eskoletan izena eman ahal izateko bi modu jarri dituzte: harituz.bzt@gmail.com helbidera mezu bat bidalita, edota ikastetxe eta udaletxeetatik bidaltzen ari diren izen-emate fitxa Internetez beteta.

Izena eman duten ikasleekin Harituzeko arduraduna jarriko da harremanetan, taldeak antolatu eta ordutegiak ikasleen egunerokora egokitu ahal izateko.

Amaitzean den ikasturtean 60 ikasle inguruk parte hartu dute eskualdean osatu diren bertso

Zer moduz joan da aurtengo ikasturtea?

Nahiko desberdina izan da beste ikasturteetatik. Bertso eskolen ikasturteari nola hala eutsi ahal izan diogu, baina aisialdiko ekintzetan eragin digu gehienbat. Aurtengo ikasturteak hutsune hori izango du.

Klaseekin nola egin duzue aurrera?

Haurren taldeei begira, astero azalpen bideo bat grabatzen nuen, eta ordubeteko saiotxo bat proposatuz bideoa bidali eta hori egiteko beharrezko materiala eskaintzen nien. Eta helduagoen taldeekin, berriz, bideo dei bidez egin ditugu bertso eskola saioak, eta bi formak erabiliz nahiko ondo funtzionatu dugu egia esan; umeen kasuan, askatasun osoa izan dutelako aste osoan zehar nahi zutenean haien saioa egiteko, eta helduen kasuan, berriz, beharrezkoa zutelako beste ikaskideen parte hartzea eta laguntza.

Oztoporik badu horrela ari-tzeak?

Aurrez aurreko klaseetan emaitza unean ikusten da, progresioa ere astero baloratzeko aukera daukazu eta etxetik hori oso zaila



Tolosako bertso eskolako ikasleak, 2018ko irudibatean. I.G.L.

eskoletan, bederatzi herri eta hamalau taldetan banatuta. «Amaitzen ari den ikasturtearen balorazioa oso positiboa da. Kuantitatiboki zein kualitatiboki aurrerapauso handia egin dugula uste dut eta datorren ikasturtean ere joera horri eustea da helburua», aipatu du Haritz Mujika Harituzeko koordinatzaileak.

Bertso eskolek ikasleengan dituzten onurak kontuan hartu beharrekoak direla uste du Mujikak: «Bertso eskoletan sortzen

den talde giroa eta laguntasun harremana berezia da eta hori interes eta ezaugarri oso desberdinetako ikasleak elkartzeak eragiten du. Bertso eskoletan guztien ahotsa entzuten da eta denek topa dezakete euren lekua». Horrez gain, bat-batean sortzeak, euskararekin etengabe jolasean aritzeak eta kantatzeak haur eta gazteei «sekulako motibazioa» pizten diela aitortu du eta ikasle guztiek «aurrerapauso handiak» egiten dituztela denbora tarte laburrean.

leak bertso eskoletan apuntatzera animatu nahi dituzue.

Apuntatzen diren haurrak interes propioz apuntatzen dira. Oso talde anitzak dauzkagu, bai generoari, bai hizkuntza mailari, haur kopuruari eta baita zaletasunei begira ere. Horrek oso talde berezi eta politak sortzea eragiten du. Egia esan, eskolan eta eskolaz kanpoko jardueran baztertuta edo sentitzen diren ikasle askok, bertso eskolan topatzen dute euren lekua eta hori guretzat oso pozgarria da. Hor irabazten du zentzua bertso eskolen filosofiak.

Zein aisialdi ekintza utzi behar izan dituzue bertan beherra?

Esate baterako, martxo amaierarako bertso eskoletako ikasleen asteburu pasa geneukan aurreikusita. Ondoren, maiatzean, Harituz eguna ospatu nahi genuen, eta baita Gipuzkoako bertso eskoletako umeen egun pasa ere. Horrez zain, ekainaren 12an Larraulen egitekoak ginen bertso jarrien afaria bertan behera utzi behar izan dugu. Eta ikasturte amaierako saioak ere ez dira egingo.

Hurrengo urtera begira, ikas-

Itsulapikoak jarri dituzte eskualdeko hainbat saltoki eta tabernatan

I.S.A.

SOS Arrazakeriak eta Tolosaldeko mugimendu feministak diru bilketa bat abiatu dute, egoera zaurgarrienean dauden etxeko emakume langileei laguntza ekonomikoa eman ahal izateko.

Diru bilketa egiteko finantza-keta kolektiboa abiarazi dute gofundme.com webgunearen bidez, batetik. Eta bestetik, eskualdeko hainbat saltoki eta tabernatan itsulapikoak jarri dituzte bakoitzak bere ekarpena egiteko.

ITSULAPIKOAK NON?

Lizartza.

Amezketza. Ametza taberna.

Altzo. Ostatua

Alegia. Aikur belardenda eta farma-zia.

Ikaztegieta. Ostatua

Aduna. Uztartza

Alkiza. Ostatua

Ibarra. Ibarburu janari denda, Maiku okindegia, Lejeune farmazia, Zubiurre taberna eta Goxobi denda.

Berrobi. Iturritza janari denda.

Berastegi. Denda berri.

Anoeta.

Irura.

Villabona.

Zizurkil. Txindoki taberna, Ogi Zuri okindegia eta Ogi Berri.

Tolosa. Hiru taberna, Marcel, Erre Berri (San Frantzisko), Ogi Berri (San Frantzisko), Ross Ilburudenda, Parafarmazia (San Frantzisko) San Francisco fruta-denda, Zabala Kafeak, La Vasconia, La Hureta fruta-denda, Xirimiri taberna, Dizdira tindategia, Samaniego lokutorioa, Super Eko, Soronea, Elena Varela ile-apaindegia eta Korreo kaleko lokutorioa.



«Oinarrian sukaldaritza guztiz tradizionala izango du»

**JOKIN ZABALA
SUKALDARIA**

Altzoko Ostatuko arduradun berria da Jokin Zabala sukaldaria. Koronabirusak jatetxea ireki eta lehen astean harrapatu bazion ere, berriz gogotsu ekin dio lanari.



E. MAIZ

Eneritz Maiz Etxarri Altzo

Altzoko Ostatuaren ardura hartu du Alegian bizi den, eta billabonatarra den Jokin Zabalak. Ibilbide oparoa du eginga sukaldaritza, eta ilusioz hasi du Altzoko proiektua. Hasieratik herritarrek erantzun «oso ona» eman diotela aitortu du. Orain, joan nahi izatera, erreserba egitea komeni da. **Martxo hasieran hartu zenuen ostatuaren ardura, baina koronabirusak behar bezalakako hasiera oztopatu dizu.**

Horrela izan zen. Inaugurazioa egin eta martxoaren 7an jarri genuen martxan, eta 14an utzi egin behar izan genuen.

Nola eragin dizue?

Astebete bakarrik egin genuen, baina oso ondo hasi ginen. Lana ondo zihoan, eta oraingo hasiera guztiz ezberdina izan da. Mugak ditugu zerbitzua eskaintzeko, baina zortea dugu altzotarrek eta inguruko herrietako jendearekin. Oso ondo ari dira portatzen gurekin. Pixkana hasi gara lanean.

Nolakoa izan da berriz martxan jartzea?

Pixkanaka joan gara. Lehendabizi terrazarekin bakarrik hasi ginen, eta orain jada jatetxearekin ere hasita gaude.

Hamar urterako kontratua egin duzu Altzoko Udalarekin. Gogotsu zaude?

Bai. Bi urte izango dira proiektu honen zain nengoela. Ilusio handiarekin eta gogoarekin. Lekua zoragarria da, eta aukera asko ditu.

Ezagutzen zenuen alde zurrik?

Bai. Gaur egun Alegian bizi naiz, eta horregatik ilusio bikoitza nuen.

Zer eskaini nahiko zenuke?

Altzoko Ostatuak hiru zutabe dituela esan beharra dago. Bat da taberna eta jatetxea, eta gero bertako produktuen salmenta eta informazio turistikoaren puntua daude. Oraingo, poliki bada ere, terraza eta jatetxearekin hasi gara. Ea laster hasteko moduan garen bertako produktuak diren esneki eta baratzeak produktue-

kin. Puntu turistikoarena murriztuta dago, oraingo. Guk bul-tzada bat eman nahi diogu, probintziako jendeak eta baita kanpotik datozenek ere Altzo ezagutu dezaten.

Eta zein aukera izango dituzue?

Astean zehar eguneko menua eskainiko dugu, eta asteburuetan menuaz gain karta ere izango da. Karta oraingo ez dugu, %50arekin baino ezin dugu lan egin, eta pixkana goaz. Tabernan, terrazan eta jangelan plater konbinatuak, anoak eta ogitartekoak jateko aukera dago. Zabala da eskaintza, baina poliki joan nahi dugu zabaltzen.

Eta zein motatako sukaldaritza dastatu ahalko da?

Nahasketa bat izango da, baina oinarrian sukaldaritza guztiz tradizionala du. Platerean aurkezterakoan osagai batzuk originalak eta landutakoak izango dira.

Orain erdiarekin ari zarete.

Jangelak zenbatentzako lekua eskaintzen du?

50 pertsonentzako toki du, eta orain erdiari bakarrik eman ahal diogu zerbitzu. Tabernan ere bada aukera, berez bost mahai ditu, baina orain bi.

Eginak dituzu sukaldaritza ikasketak.

Bai, hori da nire alorra. Bertako produktuekin lan egin nahi dut, eta azken finean, ahalik eta ondoen kozinatu.

Ibilbidea eginga duen sukaldaria zara, gainera.

Bai, duela 30 urte hasi nintzen. Donostiako eskolan ikasi nuen, eta zortea izan dut. Leku askotan aritu naiz lanean, eta esperientzia handituz joan naiz. Betidanik gustatu izan zait sukaldaritza, pasioz bizi dut. Bidea samurra izan da, eta disfrutatuz egin dut.

Nolatan heldu zenion sukaldaritza?

Donostian Ekonomia eta Enpresa ikasketak egiten ari nintzen, eta sentitzen nuen ez zela guztiz nik nahi nuena. Halako batean sukaldaritza eskolara inguratu nintzen, eta aukerak nituela

ikusi nuen eta eginiko ikasgai askok balio zidatela. Interesgarria iruditu zitzaidan eta aldatu egin nuen ikasketez, eta hortxe piztu zitzaidan harra.

Gero praktikak egin beharko zenituen...

Bai, eta zorte izugarria izan dut. Lehenengo praktikak egitera Zuberoa jatetxera joan nintzen, eta bertan Hilario, Joxe Mari eta Eusebio Arbelaitz anaiekin egon nintzen urte luze batez. Oso-oso gustura. Bertan ikusi nuen Hilario Arbelaitzek zein tratamendu ematen dien bai jakiei eta baita profesioari ere. Liluratuta geratu nintzen. Hortik aurrera ikasten jarraitzea izan zen nire asmoa.

Eta nondik ibili zara?

Zuberoatik Arzak jatetxera joan nintzen, eta jarraian Guardian aritu nintzen. Gero Frantziara egin nuen salto, Marsella eta Kosta Urdina ingurura, eta hiru urtez Parisen ere aritu nintzen. Iruñera bueltatu nintzen ondoren, hiru bat urterako, eta gero Madrilan aritu nintzen.

**atarian jarrita
Goierriko eta
Urola Kostako
Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

Bost aste falta dira

ETE liga uztailaren 11n hasiko da eta guztira hamabi estropada izango dira jokoan, lau uztailean eta zortzi abuztuan; Tolosaldea traineruko arraunlariak irrikan daude datorren astean uretan entrenatzen hasteko

Imanol Garcia Landa

Emakumeen Traineruen Elkar-tearen liga, ETE liga, uztailaren 11n hasiko da, Pasaian. «Espero dugu egun horretan hastera liga, eta aurretik ezer ez gertatzea bizi dugun egoera berezi honekin», esan du Sabino Alijostesek, Tolosaldea Arraun Klubeko (TAK) lehendakariak. «Bilerak egin ditugu eta nahiko lotuta dago dena».

Hirugarren urtea izango da TAKeko Tolosaldea traineruarentzat ETE ligan. Aurten bederatzita traineru izango dira lehian, iaz egon ziren Hernani eta Colindres ez baitira aterako, eta hamabi estropada egitea aurreikusten da. Horretarako bost eremu zehaztu dira: Pasaia, Getaria, Gextxo, Castro Urdiales eta Santander. Pasaian izango da lehenengo estropada, eta azkena Castro Urdialesen, abuztuaren 30ean. Hain justu, uztailean lau estropada jokatu dira eta abuztuan beste zortziak.

Liga balekoa izateko gutxienez zortzi estropada jokatu beharko dira. «Dena lotuta dago, baina ligan sartuta gaudenean, talderen batean infekzioen bat sortzen bada, agian ezingo dira pare bat estropada egin», esan du Alijostesek. Izan ere, hainbat osasun neurri hartu beharko dituzte kirolariek jardunaldi bakoitzean. Esaterako, estropada egingo den lekura autoetan edo autobusean joaterakoan maskarak eraman beharko dituzte, tenperatura hartuko zaie, eskuak garbitu, eta trainerua eta arraunak desinfektatu beharko dira.

Eusko Tren eta Eusko Label ligan ez bezala, ETE ligan testak egitea ez da derrigorrezkoa izango. «Norbaitek sintomak izaten hasten bada, orduan talde horrek bere testak eta bere berrogeialdia egin beharko du», esan du Alijostesek. TAKen ez dute oraingoz aurreikusten testak egitea.

Igoerari dagokionez, iaz bezala izango da: ETE ligako lehen bi sailkatuek parte hartuko dute eta Eusko Tren ligako azken sailkatuak. Beste bi estropada egingo lirateke, eta horietan erabakiko da hurrengo urtean Eusko Tren ligan egongo den trainerua. Estropada horietan testak egin



Tolosaldea traineruko arraunlariak, astearte arratsaldean, San Pedroko klubaren zulogunean entrenatzen. ATARIA

beharko dituzte ere ETE ligatik sailkatzen diren bi traineruko ki-deek.

Liga egin ahal izateko, «sekulako lana» egin dela esan du Alijostesek. «Ez da erraza gertatu den egoera guztiarekin. Ez da bakarrik denboraldia atera behar dela eta listo, bilera asko izan dira, guk egin ditugunak, KAE ligakoak Eusko Jaurlaritzarekin egindakoak eta beste hainbat». Hain justu, estropada eremuak zeintzuk diren zehaztea izan da puntu garrantzitsuenetako bat. «Taldea bakoitzak izango du bere lekua, hortik ezingo da mugitu, bakarrik uretara joateko eta buelta. Segurtasun neurriak oso zorrotzak dira, eta horiek denak antolatzeke leku aproposak lotu behar izan dira. Izan ere, talde asko izango gara: KAE 1 eta KAE 2 ligetatik hamabina, eta gurean bederatzita».

Alarma egoeran zehar bi arraunlari berri sartu dira Tolosaldea traineruan: Itsaso Aranburu tolosarra, Hernaniko traineruan zegoena, eta Carol Garcia

trintxerpearra. Azken hau San Pedro klubeko azpiegituretan entrenatzen zuten, Tolosaldea trainerukoak bezala, eta taldean sartu zitekeen eskatu zuten. «Beste guztiak harrobikoak dira», esan du Alijostesek. «Taldea asko ibiltzen ziren nahiko normal, eta gero azkeneko momentuan ekartzen zituzten galiziarak, valentziarrak edo kataluniarrak, eta plus horrekin maila igotzen zuten. Aurten hori egitea zaila goa dute, izan ere, etortzekotan denboraldia hasita izan beharko luke, Katalunian, adibidez, oraindik lehenengo fasean daudelako».

ASTELEHENEAN, URETARA

«Oso pozik» hartu dute arraunlariak ETE ligaren egutegia zehaztuta dagoela jakitea. «Zurrunmurrurru asko entzun dira berrogeialdian eta azkenean ofizialtasun hori iristea pozgarria da eta helburuak jartzen laguntzen dizu», esan du Malen Oiarzabal Tolosaldea traineruko arraunlariak. «Entrenatzen ari ginen, baina

ezjakintasun baten barruan. Egun bat eta leku bat jartzea motibazio oso handi bat da».

Astelehenean, fase aldaketa-ekin batera, uretaratzeko aukera izango dute. Konfinamenduan zehar pixkanaka lortu dituzte taldeko kide guztientzako ergometroak, eta astearte arratsaldean joan ziren lehenengo aldiz San Pedro klubeko azpiegituretara entrenatzera. «Patxi Frances entrenatzailearekin hasi ginen zulogunean arraunketa berriro gureganatzen», esan du Oiarzabalek. «Hor hasi gara eskuak moldatzen eta ipurdiak ohitzen, baina arraunarekin ura ukitzearena dagoeneko beste sentsazio bat da».

Urduri joan ziren lehenengo entrenamendu hori egitera Pasaia. «Gure sentsazioa zen Patxi ezagutzera joan ginen egunean bezalakoa, urduritasun hori. Iritsi ginenean, emozioa, urduritasuna, baina oso gustura. Sentsazio onekin bukatu genuen, ikusita ergometroan egindako lan hori guztia uretan nabaritzen

zenuela, indar eta erresistentzia puntu bat hor zegoela», esan du Oiarzabalek. «Oso pozik bueltatu ginen Pasaia, denak irribarre batekin». Orain irrikan daude uretara sartzeko. «Uste dute sentsazio arraroak izango direla hasieran, baina pixkanaka bueltatuko gara».

Zaila izango da jakitea traineru bakoitzaren maila zein izango den behin liga hasterakoan. Urruti geratzen dira neguan egindako estropadak. «Orduan oso sentsazio onak izan genituen, ontzia oso solte zihuan, eta berriro puntu horretara iritsi eta hori hobetzeko esperantzarekin gaude», esan du Oiarzabalek. Beste traineruak nola egongo diren jakitea ez dela posible dio: «Lehen gutxienez uretan entrenatzen ari zinela ikusten zenuen ondokoa nola zihuan, baina orain ez dakigu. Gure aldeko dugu ia denak etxeak garelako, iazko bizkar hezurra mantentzen dugula, eta ez dugula kanpotik etorriko zaigun errefortzu edo taldekiderik. Horrek uste dut indar puntu bat emango digula, baina beti ere aurkariak gutxietsi gabe».

Aurten ez dute Tolosaldea trainerukoek aurkezpenik egingo, ez dutelako horretarako aukerarik, osasun neurriak direla eta. «Hemendik hogeitaz egunetara-edo aterako ditugu orri batzuk eta utziko ditugu udaletxeetan, elkarteetan, taberna batzuetan... Bertan azalduko dira taldeko arraunlariak, eta ligako egutegia jarriko dugu», azaldu du Alijostesek. «Horrekin gutxienez arrauneko giro pixka bat sortu nahi dugu eskualdean».

**BILLABONA FKE**
Arratzain futbol zelaia

JARRAI GAITZAZUE

 Billabona Fke

 Billabonaf.k.e



OSTEGUNA, 2020KO EKAINAK 4
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818, publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082, tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetaledea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarralde: 687 410 118, ibarralde@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132, kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Tolosaldeko
gizarte
eragileak

BABESTUTAKO EDUKIA

«Ikasitakoa lan mundura eramateko aukera eman zidan»

MAIALEN GONZALEZ
INMAKULADA IKASTETXEA

Zergatik aukeratu zenuen Lanbide Heziketa egitea?

Betidanik gustuko izan dut esparru hori. Gure gizartean beharrak alde guztietatik sumatzen direla uste dut eta behar horiei erantzuna emateko aukera izatea zoragarria iruditzen zait. Gainera, pertsonen zuzendutako lanak/laguntzak/egokitzapenak garatzea funtsezkoa da zailtasunak dituzten pertsonen beraien bizi kalitatea hobetzen laguntzeko.

Zer moduz DUAL prestakuntza?

Oso ondo! Nire lehengo esperientzia Katealegia izan zen, lan txertatzaile bezala. Esperientzia oso polita eta interesgarria iruditzen zitzaidan, izan ere, ikasten ari nintzen edukiak lan munduan praktikan jartzeko aukera paregabea eman zidaten bai Inmakulada ikastolak eta baita Katealegia ere. Urtebeteko epea eman zidaten DUALa burutzeko eta epe horretan nire zeregin nagusia bertara etortzen ziren langileei harrera eta elkarrizketak egitea izan zen.

Gureak-en aritzen zara orain, zer moduzko esperientzia izaten ari da?

Bikaina. Gureak enpresan lanpostu berri bat sortu zuten eta norbait behar zuten hori betetzeko; Inmakulada izan zen enpresa eta nire artean zubi-lanak egin zituen. Aukeraketa prozesura bidali zidaten eta aukeratua izan nintzen.

Zer moduz lanean? Gustura al zaude zure lanpostuarekin? Ikasitakoak balio izan dizu?



Hasieran atsedenetako zaintzak egiten nituen eta gaur egun, Bidean programako arduraduna naiz. Noski ikasitakoak balio izan didala, baina erakunde, enpresa... bakoitzak lan egiteko era desberdinak ditu eta zu zara lanera egokitu behar zarena. Ikasi duzun guztia beraien metodologia erabiliz nola azalarazi dezakezun ikusi behar duzu.

Zerbait gehiago ikasi behar izan duzu?

Nire esparruarekin zerikusia daukaten ikasketak gauzatzen jarraitu dut. Azkeneko lorpena, zeinu hizkuntzako B1-a izan da.

Lanbide Heziketak eskaintzen duen formazioa gomendatuko zenuke?

Lan bokazionala dela uste dut, baina bai, esparru hau gustukoa baduzu... aurrera!

«Irakasleekiko tratua askosez gertuagokoa da»

JOEL WEPSIEC
PEÑASCAL FUNDAZIOA



25 urte ditu Wepsiec-ek. Elduainen bizi da eta duela zortzi urte oinarritzko Lanbide Heziketa egin zuen Peñascal fundazioan, galagarintzako zikloan.

Zeini gomendatuko zenioke Lanbide Heziketa egitea eta zergatik?

Ikastea gehiegi gustatzen ez zaienei gomendatuko nieke. Irakasleekiko tratua ez da eskola izan ohi den bezalakoa, askoz gertuagokoa da.

Zein da zure esperientzia?

Oso gertuko tratua ematen dute eta irakasleak ez dira eskoletakoak bezala, tratua oso desberdina da. Nik oso esperientzia ona izan nuen eta oso gustura egon nintzen. Irakasleek entzuten dakite eta niri asko lagundu dit horrek.

Nolakoak dira Peñascaleko eskolak?


Eskolan eseri eta irakasleari entzuten egon behar da, baina hemengo esperientzia bestelakoa da. Peñascaleko funtzionamendua bestelakoa da; denbora

gehiena praktikatzen ematen da, teoria lantzen baino gehiago. Nirea bezalako perfla dute nentzat askoz hobea da.

Bi urte eman zenituen Peñascalen, eta ondoren praktikak egiteko aukera izan zenuen, ezta?

Bai horrela da. Zikloa bi urtetakoa da, praktikak barne. Ikasketak bukatuta Lizartzako enpresa batean praktikak egiteko aukera izan nuen eta behin bukatuta bertan lanean jarraitzeko aukera izan nuen. Urte eta erdiz aritu nintzen bertan lanean eta beste enpresa batean, Borobilen, lanean aritzeko aukera sortu zitzaidan gero. Bost urte aritu naiz bertan peoi bezala eta oraindik bertan jarraitzen dut, baina lehen mailako ofizialen kategoria daukat orain.

Bestalde, Peñascaleko eskolan atera ez nuen DBHko titulua ateratzeko aukera izan dut. Ikasten jarraituko banu, titulua aukera ematen dit erdi mailako ikasketak egiteko.



«Loreen munduan sartzeko aukera eman zidan»

MAITANE ALONSO
FRAISORO ESKOLA

Zergatik aukeratu zenuen Lanbide Heziketa?

Loreen mundua dut gustuko eta horri begirako ikasketak burutu nahi dituen, eta hemen inguruan, Fraisoro da aukera hori eskaintzen duen bakarra.

Zer moduz Erasmus esperientzia? Non egon zinen eta zertan? Zer eman dizu?

Erasmusko esperientzia oso ona izan zen. Urteak pasata, konturatzen naiz zein zorte ona izan nuen eta esperientzia hartzeko aukera eman zidala. Momentuan bertan ez zara konturatzen, baina kanpoko jendearekin zure sektorean lana egitea oso baliagarria da; ideiak ematen dizkizu, lan egiteko modu berriak ikusi ahal dituzu... Etorkizunean erabili ditzakezun esperientziak dira. Italiako Pistoyan egon nintzen, lore-saltzaile bezala, loradenda batean.

Zerbide hartu duzu beka amaituta? Baliagarria izan zaizu?

Erasmusetik etorri eta gero, curriculum on bat prestatu nuen, eta lan bila hasi nintzen, zorionez momentuz, loreen munduan ibili naiz hainbat enpresatan.

Zer esango zenuke Lanbide Heziketari buruz? Gustura zaude egindako aukeraketaekin eta lortu duzunarekin?

Baliagarria izan zen niretzat eta ikasketak egin eta gero formatzen jarraitu dut hainbat ikastaro eginaz. Mundu honetan hasteko aukera eman zidan Fraisoroko prestakuntzak.